

2009KO URRIAK 8

8 DE OCTUBRE DE 2009

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO URRIAK 8

DIA: 8 DE OCTUBRE DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Pilar ETXABE IRIONDO
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Manuel ZUBIA ARTABE
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Cristina FORCADA UNANUE.
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Paloma HEREDERO NEGREDO

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du. Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eskerrikasko eta gaur ez ohizko pleno honi hasiera emango diogu gaur urriak zortzi, osteguna, arratsaldeko zazpirak diren hontan, ez ohizko plenoari ekingo diogu, gai orden bezala aurrenengo puntua daukagu, puntu bat:

ARDANTZABIDE: ORDAINEAN EMATEAREN ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Dagoeneko diktamina astelehenean onartu zen, batzordean, honen nondik norakoak ere dagoeneko badakizkizu zein diren baino hala eta guztiz ere, nik hasteagatik nonbaitetik, eta horrelako laburpen txiki bat egiteagatik eta jakiteagatik nondik gatozen eta nora goazen edo zer onartu behar dugun, gogoratu behar da 2003. urtean hitzarmen urbanistiko bat sinatu zela udaletxea eta Promociones Salbideren artean, eta bertan esaten zenez sei hilabetera aurrenengo blokeetako etxebizitzaren lizentzia aurrenengo lizentzia, okupazioko lizentzia eman ondoren, lehenengo erabilera baimena eman ondoren, sei hilabetera frontoia bukatuta egon behar zuela.

Bertan adierazi ziguten, denbora aurrera zihoala, ba... krisi garaia jota edo bertan esaten zen klausula bati, ahalegia abala jarri behar zuten klausula horri aurre ezin ziotela egin, frontoia egin bai, baina abala ezin zutela jarri eta hortik jarraian ondorengo izan diren eztabaida guztiak, negoziazio guztiak eta eduki ditugun gorabehera guztiak.

Horren aurrean udaletxeak ze bide zeuzkan jorratzeko?

Bi bide; alde batetik, obligazioa, berak zeukan obligazioa negoziatu konstruktorearekin berriz ere negoziatu eta beste baldintza batzuk, beste berme batzuk begiratzen jarraitu, horretan jardun genuen hilabeteetan, gogoratu nahi dut hilabete ezberdinetan borradore ezberdinak izan ditugula, borradore horien berri hirigintzako batzordean alderdi politiko guztien

ordezkariei eman zaiela puntualtasunez informazioa, nola zihoan eta zer gauza zeuzkan eta iruditzen zitzaigun konstruktorearekin izandako elkarrizketa horiek emaitza positiboak izan zitzaizketeela frontoia egitearen bidean.

Zergatik? Iruditzen zaigulako anbito horren Ardantzabideko eremu urbanistikoan gehiengoa Salbidek, kasu hontan duela, infrastrukturagatik eta baliabide obren baliabideagatik, erreztasun haundiagorekin egingo lukeela Salbidek frontoia, eta beraz berarekin akordio batera iristera askoz ere garrantzitsuagoa zela beste edozein bide hartu baino, beraz esan dudan bezala Udaletxeak bide hori hartu zuen, negoziazioak luze edo luze baino gehiago sakonak izan dira, esan dudan bezala hasierako borradore horri modifikazio ezberdinak ematen joan izan zaizkio, esan dudan bezala Hirigintza batzordean aipatuak izan direnak, baino egia da emaitza horrek ez zituela eman Udalak espero zituen fruituak.

Zoritxarrerako beraiek ezartzen zituzten bermeak, oso urriak ziren udalarentzat eta bide hori bukatu eta beste bide bati ekin behar izan genion orain dela ez asko.

Bide hori, hain zuzen ere bigarren bidea zen. Obligazio hori berari ba... obligazio hori ekidin eta udalak hartu zezala obligazio hori bere gain, horren truke edo horren ordeztasun partzela bat eman behar zigun Salbidek guri, guk ba... partzela horren bitartez frontoia egin ahal izateko.

Harremanetan jarri ondoren eta negoziazio ezberdinen ondoren, baloratu ziren lur partzela batzuk, dagoeneko baita ere hirigintza batzordean aipatu zirenak, beraiek tasazio batzuk egin zituzten, guk udaletxetik beste tasazio bat enkargatu genuen, gehi gure barne tasazio bat ere izan genuen.

Guzti horretatik, ondorioztatzen zen zazpigarren partzela egokiagoa izango litzatekeela udalaren esku uztea, berak asebetetzen baizituen frontoiaren edo frontoiak suposatzen zituen kostu guztiak.

Esan dudan bezala, derrigortuta aurkitu ginen bide hori jorratzera, gauden egoeran egon da, krisi egoeran egon da, ba... konkurtsora ateratzeak bere arriskuak ere badituelako, badakigulako konkurtsora ateratze horrek bere arriskuak dituela, konstruktoreak gaur egun aurkitzen direlako aurkitzen diren moduan, baino arrisku horren gaintik aldiz garantia edo bermea zeharo garantizatuta aurkitzen zen.

Neurri hortan dagoeneko denok eskura ditugu, informe juridiko bai tekniko bai kontuhartzaitzako informe guztiak aldeko txostena zutela eta zorionez, ba... gutxienez honekin bermea garantizatuta zegoela.

Hauek azkenengo ba... azkenengo bideak hauek izan dira, derrigortatu aurkitu garelako bide hau ematera, ba... bide honi ekingo diogu, espero dezagun bide honek bere fruituak emango dituela etorkizun batean, nahiz eta errealistak izan behar dugun lehen esan dudan bezala, -no nos tenemos que llevar a engaño- erderaz esaten den bezala, krisi egoera batean gaude eta lehenago aipatu dut egoera zein izan litekeen, baino gure ardura edo

gure gain dauden lan guztiak bihartik aurrera berriz ere jarriko ditugu dauden argi printza batzuk ba... jorratu bidean.

Bukatzeko bai aipamen berezi bat aparteko bat egin nahiko nuke, kronologia guztia hau egin ondoren eta aipamen politiko bat edo balorapen politiko bat egin nahiko nuke guzti honena.

Guzti hau lehen esan dudan bezala 2003ko hitzarmen urbanistiko baten ondorioz hartzen dugun zerbait da, lehen esan dudan bezala esaldi horrek dakarzkigun arazoak medio horri soluzio bat bilatzen bidean eta hor non topatzen garen hain zuzen ere 2003. urtean sinatu zuten berberarengatik, publikatzen dutela esanaz, gu ez gaiak omen gara, inkapazak omen gara frontoia egiteko. Nortzuk eta 2003. urtean sinatu zuten hitzarmen baten ondorioz aurkitzen garen egoeran egonik.

Beraz, garbi adierazi behar da gaur hemen baldin bagadude, gaudela izenak dioen bezala modifikatzen, aldatzen, hitzarmen urbanistiko bat zeinek zoritxarrez ondorio honetara eramán gaituen.

Eta errazena da esatea bai kalean ez gaiak garela, inkapazak garela frontoia egiteko baino hori kalean esan liteke, Trapaian, Goikon, baina hemen udaletxean tranparik ezin da egin; eta tranparik egin ezin denez eta dena idatzia dagoenez kuestioa da ze... soluzio ematen diogun esaldi horri.

Esaldi horrek soluzio bat ba al du?

Alternatibarik ba al dago?

Dakigun gauza bakarra eta alternatiba bakarra da, mahai gainean jarri duguna. Beste alternatibarik ez du inongo alderdi politikorik mahai gainean jarri eta beraz zentzu hortan ezin esan beste inorri, ezin leporatu beste inorri inkapazak garenik ezertan, baldin eta alternatibarik aurkezten ez baldin bada.

Nik besterik, nere aldetik ezer esanez, espero dugu gai honekin, erresponsabilidadez hartutako erabaki bat izango dela, erresponsabilidadeak eramaten gaitulako egoera, krisi egoera honetan, denak, ba... nahiko gaizki gaude baita ere erresponsabilidadez esan behar delako, hor behean urbanizazio anbito hortan, ba... bueno etxe jabe batzuk badaudelako, gremio batzuk ere badaudelako, eta guztiak pikutara joan litekeelako, litekeenaren arriskua ere hor dagoelako, beraz erresponsabilidadez bide guztiak jorratu ditugulako eta beste aukerarik ez dagoelako, ba... gure baiezko botua izango da.

Hemendik aurrera, alderdi politikoei hitza ematen dizuet, zuek nahi duzuen esateko, PNV,

LIDE AMIBILIA BERGARETXE AND.: Arratsaldeon, dakizuten bezala, gure taldearen hirigintzako gaiak eramaten duena ez naiz ni, baina bueno saiatuko naiz gure postura ahal den argiena azaltzen.

Argi daukagu egoera hontara iritsi bagara, udal gobernuaren inoperantzia eta gelditasunarengatik izan dela, ze askotan errepikatu izan dugu batzordetan ze gertatzen ari zen frontoiarekin. Etxeak goruntz zetoze eta frontoiaren berririk ez genuela. Ez diguzute kasurik egin eta askotan soka puskatzear dagoenean ematen du hasi direla mugitzen irtenbide bat lortu nahian, ez?

Nik entzunda daukatenez, behin eta berriz batzordetan komentatzen zen etxeak egitear daude, eginak daude, teilatua jarrita dago, antena jarrita dago eta noizko frontoia, bueno ba.... azkenean hori gertatu da.

Gu Zumaiian, noski, frontoia nahi dugu. Esaten diguzute promotoreak zailtasunak dituela finantzazioak bilatzen frontoia exekutatzeko eta sinatuta zegoen hitzarmenaren aldaketa planteatzen duzue.

Gu, hasierako planteamentua berriz kontsideratzeko prest azaldu gara, konsziente garelako egoera ekonomikoaren aldaketa garrantzitsu, egoera ekonomiak aldaketa garrantzitsua eman duela eta promotorearen –concurso de acreedores- baten mehatsuaren aurrean, herriari ba... herriaren beharrei erantzun behar diogula.

Udalaren lur lagapenaren formula hasiera batean, batzorde batetan, guk planteatutako formula izan dela usten dut, eta hari hontatik tira egin duzue gaur aurkezten duzutena ba... formula edo planteamentu hontara iritsi arte.

Egoera hontara iritsita, pentsatzen dugu proposamenaren, proposamenean agertzen diren balorazioak ondo egongo direla eta udalaren eskubideak ere ondo bermatutako egongo direla, bere indarra udalak ba... prezio hontara galdu ez dezan.

Baina bueno berehala, forma aldetik ere lehenengo zalantzak somatu ditugu gobernuan; hasiera batean nahikoa omen zen eskualdatze hau egiteko Alkatearen Dekretuz sinatutako agiri bat, baina gero esaten diguzute ba... ezetz, plenora ekarri behar dela eta astelehenean batzorde batera deitzen diguzute eta gaur hemen plenoan gaude, hau eztabaidatzen.

Eskualdatze honek ere zalantza batzuk sortzen dizkigu, eta pixka bat azaltzera noa,

Proposamenaren lehenengo puntuan esaten da:

“Promociones Salbide S.L. eta Nautica Unanue S.L.k, Zumaiako Udalari ematen dizkion 07 HA-Ardantzabideko 7.1 eta 7.2 partzelak, domeinu osoan, zama edo kargarik gabe, hirigintzakoak izan ezik” nahiko genukeena jakin da pixkat karga hauek zeintzuk dira eta kostuak... karga hauen kostuak.

Gainera eta oker ez banago, batzorde batean komentatu genuen aurkezten duzuen testu hontan, komenigarria izango litzatekeela hitzarmen honi lotuta dagoen anbulategiko lurraren erosketan udalarenak izango diren 7.1 eta 7.2 partzela hauei dagozkion zati proportzionalaren kostoaz libre geldituko direla hor azaltzea, ez? Eta horrelako aipamenik guk ez dugu hemen ikusten.

Proposamenaren lehenengo puntuan esaten da:

“Zumaiako Udalak emango dio Promociones Salbide S.L. eta Nautica Unanue S.L.ri operazioaren B.E.Z.aren zenbatekoa, faktura eskuratu ondoren”. Eta gure galdera da, zenbatera igotzen den operazio hontako B.E.Z. hori eta kontutan hartu den kopuru hori partzela baloratzerakoan, ez? Hau da, 3.866.000 €ko partzela baldin badaukagu, horietan kontutan hartuta dagoen B.E.Z. hori, ordaindu behar den B.E.Z. hori, konpentsazio hori egiteko ez?

Nahi duguna da, behin eta berriz frontoia egitea eta azkar egitea. Zuek batzordetan komentatu duzutenez oso seguru zaudete formula honekin, hori lortuko duzutela, nahiz eta gaur Alkateari hain seguru ez ikusi.

Gu zoritxarrez, ez gaude hain ziur.

Promotore batzuk hainbeste zailtasun badituzte finantzazioak lortzeko, arraroa egiten zaigu beste batzuk horrelako operazioetan sartzeko dirua lortzea, baina zuen aldetik hori aurrera jarraitzeko ez dagoela problemarik ikusten baduzute, ba... horrela bada, askoz ere hobeto denontzak.

Besterik ez.

Sr. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Después desde luego del tiempo que lleva esto, da un poco de... no sé como expresarlo si de alegría o de qué, el que se vea algo terminado, no sé si de la mejor o peor manera posible, pero al menos en este momento se ha dado un paso importante en algo que desde el 2003 que venía dando tumbos, también no sé si será la mejor o la peor de las, digamos de las opciones que había encima de la mesa la que se... definitivamente hoy se trae al pleno para el tema de la ejecución del frontón. No cabe la menor duda que la opción que recogía el convenio firmado en el 2003 facilitaba las cosas al ayuntamiento puesto que era Promociones Salbide, quien hacía exactamente, o sea, todo referente al frontón, por lo tanto todos los problemas de ejecución y demás y tal pues estaban en su mano.

Esto significa ahora que con la entrega de la parcela, es el ayuntamiento el que tiene que correr con todas esas dificultades, espero que las diferencias económicas sean mínimas, para nosotros debe de ser suficiente porque entendemos que el proyecto que está ahora encima de la mesa sobre el frontón a ejecutar, es un proyecto caro, un proyecto que se puede y se debe reducir su coste bastante sin que por ello se tenga que mermar en una parte sustancial, o en... o digamos... o desvirtuar el frontón que en un principio estaba propuesto, no cabe la menor duda que un frontón de seiscientos y pico de millones de pesetas, por entendernos de alguna manera, creo o consideramos que es un precio muy elevado que Zumaia se puede ver servido con un frontón de ese tipo, con un coste bastante menor y evitar con ello que los vaivenes que pueden haber en el mercado urbanístico en el

tiempo, esa parcela cubra con creces el coste del nuevo frontón y por lo tanto este cambio de un cromó por otro, un contrato por otro, pues como mal menor sea el trabajo que tendrán que ejecutar el equipo técnico del ayuntamiento para que esto salga adelante, porque estoy convencido que... como he dicho anteriormente que el proyecto que hay encima de la mesa no se puede ejecutar, no se debe ejecutar, supone un coste elevadísimo, hay cantidad de cosas dentro del propio proyecto que deberían de eliminarse, buscando la reducción del coste y para nada el nuevo frontón con esa reducción de costes, tiene que desmerecer en nada en el que estaba propuesto. Luego, espero que siendo así lo que hoy, si se aprueba definitivamente lo que está encima de la mesa, pues aunque sea dentro de dos o tres años, un año o lo que sea, no lo sé, pues sea digamos aceptable y en las condiciones que se pretendía tener el nuevo frontón, espero así de todas las maneras.

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Arratsaldeon, Gaur bozkatu behar dugun diktamen honek, frontoi berria eraikitzeo ditugun arazoak konponduko dituelakoan ekarria izan da plenora.

Egoera honetara iritsi gara 2003. urteko udal gobernuak sinatu zuen hitzarmena desastre bat izan delako.

Hitzarmen honek ez zuen inolako aurreikuspenik eta honek eraman gaitu, gaur egungo egoera berri hontara. Orain hitzarmen txar honek aurrera egiteko frontoia egin ahal izateko, erabaki arriskutsu bat hartzera behartzen gaitu.

Baina aurrera egiteko berriz diot, eta behingoz frontoia martxan jarriko den gogoarekin erabaki arriskutsu honi aldeko botua emango diogu,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Arratsaldeon guztiori.

Egia esan hartu behar dugun erabakia, erabaki oso garrantzitsu da. Eta horrelako erabaki garrantzitsuen aurrean polemiketan sartzea niri benetan ba... penagarria iruditzen zait ba... gai honek eduki duen bilakaera edukita eta bakoitzak gai honen inguruan dauzkan ardurak zeintzuk diren jakinda.

Kontua da, entzun behar izan dugula pleno hontan zer gertatzen den frontoiarekin galdetzen zitzaigula eta ez digutela kasurik egin. Ez dakit, ez dakit norekin hitzegiten ari garen edo nori zuzentzen gatzaizkion, ume mokoei, ume txikiei, baino etxeak egiten usten diogu, frontoiaren berririk ez dago, badirudi, ez dugula ezer ulertzen eta badirudi sinatzen ditugun dokumentuak ez ditugula egoki interpretatzen.

Zer gertatzen da frontoiarekin? Eta etxeak gora dihoaz. 2003. urtean sinatu zen hitzarmenaren ondorio bat da. Eta hitzarmen hori ez genuen guk sinatu, hitzarmen hori beste batzuk sinatu zuten. Hitzarmen hura txarra zen.

Hitzarmen hura, hitzarmen harek egoera bakarria aurreikusten zuen, eta hitzarmen batek aurreikusi behar ditu egoera posible guztiak, egoera onak eta egoera txarrak. Eta hitzarmen hark egoera onak bakarrik ikusten zituen, aurreikusten zituen. Aurreikusten zen egoera zen planoan etxeak saldu eta laurehun lagun apuntatu dauzkagun ba... koiuntura batean bueno, etxeak barra-barra saltzen ditugu eta frontoia bakarria etorriko da.

Eta frontoia bakarrik etorriko denez, frontoia egikaritzeko jarriko ditugu baldintza batzuk hori ahalbidetzeko inoiz bete beharrik edukiko ez ditugunak. Baina kontua da "Plan B"-rik ez zuela hitzarmen horrek. Eta "Plan B" horren ezak, azkenean, inoiz betearazi behar ez ziren baldintza batzuk betearaztera eramán gaituela.

Ez dago frontoirik, ezin da lizentziarik eman.

Ez dago abalik, ezin da lizentziarik eman.

Eta nor dira hemen galtzaileak? Eta nortzuk dira hemen paganoak? Ba... beti bezala herritarrak; herritarrek etxebizitzak erosten dituzte, beroien lana eta esfuertzoaren bitartez baino lizentziarik ezin dute jaso, frontoirik ez dagoelako, eta herritarrez frontoirik ez dute eta pilotazaleak eta mundu hortan mugitzen direnak, nabarmena denez eta horrela behar duenez, ba... frontoia izatea nahi dute eta zerbitzu publiko bat ez da bermatzen eta etxebizitzak, etxebizitza duin baten eskubidea ere babes ofizialeko etxebizitzak barne ere, ez da bermatzen.

Kontua da, legeak ezartzen zizkion baino betebeharrak gehiago ezarri zitzaizkiola promotoreari. Legeak esaten du zer baldintza ezarri behar zaizkion eta zer entregatu behar dion udalari, baino haizea alde, egoera ekonomiko oso ona goazen gehiago eskatzera! Goazen gehiago eskatzera, ematen du eta behiak esnea, barra-barra! Baina, behia hil egin da eta esnearen arrastorik ez da, eta legeak betearaztera edo legeak entregatzera behartzen ez zizkion horiek, ez ziren behar bezala abalatu.

Esaten duzute, etxeak geratu! Nik usten dut, hirigintza batzordean, ez nik, horretarako dauden teknikariek esplikatuta dutela, etxeak ezin genituela geratu, hitzarmenaren konplimendu ezik ez delako egon.

Promotoreak ez dauka lehen erabilera baimenik.

Zergatik ez dauka lehen erabilera baimenik?

Abalik ez duelako ekarri eta frontoia egin ez duelako.

Beraz, ez du lehen erabilera baimenik. Etxebizitzak ezin genituzake geratu, egin genezakeen gauza bakarria da lehen erabilera baimena eman ez; eta hori da egin genuena, nahiz eta abal horiek ez betetzeko edo garanti horiek ez exekutatzeko ezarri ziren.

Zer gertatzen da frontoiarekin? Ez diguzute kasurik egiten.

Nik usten dut, norberak sinatzen duena, ezagutu behar duela eta horren baitako exigentziak egin behar direla.

Gero komentatzen duzute, plenotik pasatu behar zela, orain aldiz plenotik pasatu behar dela eta batzordean ere pasatu izan denean ba... batzorderen

batera edo bueno... ezin izan zineten agertu eta ez zineten agertu eta zuen iritzia jakin ahal izateko arratsaldean bilera bat antolatu genuen eta zuen ba... hirigintzako zinegotziarekin egon ginen eta kontua da nire irudipena dela PNV azkenengo momentura arte bere iritzia edo bere posizionamendua ezkutatu nahi izan duela eta ez duela herriratu nahi izan zer pentsatzen duen guzti hontaz. Eta nik usten dut PNV-k ardura maila haundia duela ba... gaur egun arteko eszenatokiaren sortzaile nagusietako bat PNV bera delako.

Abuztuaren 30ean hirigintza batzordean, mahai gainean jarri genuen, eraikitzaileak frontoia berak egiteko, egiten jarraitzeko, hitzarmen moldaketaren zirriborroa, noraino iristen ginen, zer admititzen zuen eta zer onartzeko prest zegoen eraikitzailea. Guk ez daukagu varita majikorik inorri egin nahi ez duena, eginarazteko. Eta guk lortu genuen hitzarmen posiblea ez zituen baldintza minimo batzuk betetzen, ez zituen garantia minimo batzuk betetzen, eta mahai gainean hori jarri zen eta guztion artean, PNV barne, erabaki zen beste bide bat jorratzen, guztion artean PNV barne, eta bilera hortan ideia desberdinak eman zituen PNV-k; batzuk hobeak eta beste batzuk okerragoak; batzuk ba... entzuteko modukoak eta eskertzeko modukoak eta beste batzuk borondate onarekin baino benetan ba... ez ziren batere, batere egokiak.

Irailaren 21ean, berriz, bigarren bide horrek eman zuenak mahai gainean jarri eta denon artean konpartitu genuen ba... interbentzio desberdinak egon ziren baino guztiok gutxi gora-behera ba.. bueno, begiratu badator eta agian Zumaia Lantzenen bitartez ere, ea zerbait egitea badagoen, PNV-ren proposamena, eta ez dakit zer eta badakit zer, eta alderdi sozialistako kideak ere ba... bueno alde hitzegiten zuen eta irailaren 28an geratu ginen, hurrengo hilean, hurrengo astean beste hirigintza batzorde bat egingo dugu eta berta ia posizionamendu bat hartuko dugu guztiok eta ba... ea zer egiten dugun horrekin.

Orduan oraindik, udal plenotik pasatu beharrik ez zegoela iruditzen zitzaigun, baina gu gaur hemen baldin bagaude, ez da ba... bueno egun batean hanka batekin jeikitzen garelako eta bestean, bestearekin eta erabakiak ez... Guri udal plenotik pasatu behar den edo ez, gai hau, ba... bertako teknikariek adierazten digute eta nola aurreko hitzarmena udal plenoak onartu zuen eta udal plenoa da akreedore, beraz, ba... akreedoreak onartu behar du oinardetan eskaintzen zaiona; udal plenoak onartu behar du ordainetan eskaintzen zaiona eta ez beste inork, orduan horregatik gaude gaur hemen. Nioen bezala irailaren 28an hirigintza batzorde bat egiten dugu irailaren 21ekoaren ondotik, non ia komentatu genuen, kontu hau landu beharra dago eta irailaren 28an erabakiak, posizionamenduak behar ditugu; egiten dugu hirigintza batzordea eta bueno, ezin izan zuen etorri PNV-ko ordezkaria, bale, telefonoz hitzegiten dugu eta bueno... beste guztiok zer posizionamendu eduki dugun konpartitu eta ba... PNV-ren

iritzia ere garrantzitsua iruditzen zaigula eta, arratsaldean hitzordua jartzen dugu, hirigintzako batzordeak zer ematen duen, mahai gainean jartzen dugu eta iritzia eskatzen da PNV-ren ordezkariari, erantzuna gaia oraindik alderdian ez dut tratatu, ostias, irailaren 28an, ez dakit, ba... nik usten dut ba... ordurako tratatzeko moduan bazela ez? Ardurarekin jokatzuz gero ordurako nik usten dut gaia ezaguna eta bueno... barendola eta guzti dauzkagu herriko balkoietan, irailaren 28an hori horrela izanik, gure idazkari eta gure teknikariek horrela adierazita udal pleno baten beharra, diktaminatu beharra eta beste hirigintza batzorde baten beharra etortzen zaigu.

Hirigintza batzorde berri hori egiten dugu, diktamen hau mahai gainean jartzen dugu eta bueno.... PNV-ren abstentzioa gaia oraindik sakonki aztertu gabe dagoelako, hori astelehen hontan, eta gaur oraindik ez dakigu zer bozkatu behar duzuten, nik pentsatzen dut arduraz jokatzeko dugula eta hemen guztiok ba... herri honek behar dituen soluzioak jarriko ditugula mahai gainean, baino iruditzen zait arduraz jokatzeko unea ere iritsi zaigula guztioi eta orain ardura horiek ekiditen ez garela saiatu behar eta iruditu zait, iruditu zait, aurreko batzordeetan eta aurreko indeterminazio horiek pixka bat ardurak ekiditearen intentzioarekin egin direla; partzela, partzela baloratzeko orduan B.E.Z. barne hartu genuen, ez dakit, B.E.Z.-a balorazioaren ondotik dator, zenbat balio duen dakigunean zenbat B.E.Z. ordaindu behar dugun jakingo dugu.

Gero bestalde, Emilianok ideia interesgarri bat jarri du mahai gainean, eta niri iruditu zait ba... jarri duen ideia ba... baloratu eta kontuan hartu beharko dela eta frontoi horren egikaritze proiektua optimizatu, meioratu eta Zumaiak behar duen frontoia egin behar dugula. Eta Zumaiak behar duen frontoia agian ez dira 630 miloi izango, agian ba... ez dakit, agian 580 miloiekin egin daiteke, agian, ikusiko dugu eta agian 590 miloieko frontoia egiten dugu eta agian etxebizitza libreak 40 miloietan saltzeko abilitatea daukagu, agian, orain daukagu aukera anitzak, orain gu gara egoeraren jabe, orain guk dugu lur bat balore bat duena eta lur horrek egoera ekonomikoa onera egingo badu eta gurú guztiek esaten dute onerantz ari dela egiten, ba... lur horrek gaur sei balio baditu ba... hemendik igual hilabete batzuetara sei t´erdi balioko du, ojala, eta ez bost t´erdi, ojala, baino nioen bezala, ideia interesgarria iruditzen zait.

Balorazioaren inguruan esaten zenuten, ojala ondo egina egotea, eta ojala ba... kosteak asumituak izatea.

Balorazioa, promotoreak 660 miloietako egin zuen, enpresa... enpresa guk kontratatutako beste enpresa batek LKS 655 miloitik gora eta udal-teknikariak egin beharreko balorazioa eta azkenean legeak ezartzen du, berak egin behar duela balorazioa 646 miloietan, balorazio guztiak 628 miloitik gora daude nabarmen, guk gaur 628 zor bat kitatuko dugu 646 miloietan baloratutako lur bat jasoaz, beraz, jaso beharreko baino 18 miloi

gehiago jasoko ditugu, eta hortaz aparte baita ere jasoko duguna da egikaritze proiektu bat 46 miloi peseta kostatu dena, beraz, 646 miloi gehi 46 miloi 692 miloi jasoko ditu udalak, 628 miloiko zorrak kitatzeko eta gero udalaren esku egongo da frontoi horren kostea neurri batean ba... pulitzea, mejoratzea ba... operazioa ahalbidetzeko eta benetan, ba... frontoia pixka bat, pixka bat, goxatuz gero edo ekonomikoki ba.. bideragarriago egiten baldin badugu, dauzkagun etxebizitza libre kopuruarekin nik usten dut, Euskal Herriko kostak guztian ez dituztela salduko gure inguruan egin daitezkeen etxebizitzaren prezioa ba... etxebizitzarik.

Ez dut optimistegia izan nahi baina ezta ere pesimistegia, nik usten dut egoera ez dela ona, baino nik bai usten dut lortzen dugun aukera orain arte genuena baina hobea dela eta orain guri tokatuko zaigu lan egitea, baino horrek bi gauza ditu, bat ona eta bestea txarra; lan gehiago edukiko dugula txarra eta ona ba... gure habilitatearen menpe egongo garela eta ni benetan gure habilitateaz guztiz konfiatuta nago zeren horretarako daukagun laguntza ba... ezin hobea da,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko, bigarren txanda bati ekingo diogu, ea pixkat labur-labur bakoitzak esan duenari erantzun etbr... egiten diogu, ni hasi naiz lehenago eta nik berriz ere pare bat apunte egingo ditut, PNV-k esan duenari erantzunez, obligazioa orain arte, oker ez baldin banago eta gauzak ez baldin badira aldatu behintzat, zen Salbiderena, obligazioa Salbiderena baldin bazen eta frontoia egin ez baldin bada, nola liteke gu inkapazak izatea, hori ez zait niri buruan sartzen.

Salbidek eduki obligazioa eta gu inkapaza izan ez ginela jabetzen etxeak gora zihoaztela eta frontoia ez zela egiten, nola ez ginela jabetzen, Salbidei eta Eliasi ez hainbeste, baino bertako eta bueno ez ditut izenik esan nahi baino bertako arduradunei makina bat aldiz esandako gauza da, aizue akordatu zaitezte sei hilabetera frontoira bukatuta egon behar duela eta oraindik akordatzen naiz non eta nola esanda dauzkaten orain ia urtebetetik hona, ikusten ari zelako gauza ez zetorrela ondo.

Orduan, inkapaza hitzak esateak, zer esan nahi du, horren atzetik zeozer egon behar du, lehen esan dudana da Goikon, Trapaian esatea hauek “inkapaz batzuk ditxuk” porque frontoia ez dek egiten, vamos oso ondo dago, porque jendeak.... ba... bueno, baino es que hemen udaletxean egon da begien aurrean edukita dauzkagunak eta letuta eta ikusita eta zein den –el rollo de la cuestión- eta hori nola resolbitu behar den etbr... aukerarik jarri al du bateren batek?

Aukera hau ez baldin bada, beste aukerarik jarri al du bateren batek, mahai gainean?

Beraz, beste inork ez baldin badu aukerarik jarri, denak ari baldin bagara herrien onerako nola liteke herrien onerako ari garen hortan, guri deitzea

inkapazak, eta alternatiba bat ez ematea horri, hori niri ez zait buruan sartzen.

Gero galdetzen zenuten, baita ere ez zenuela argi ikusten diferentzia... oker ulertu ez baldin badut tasazioaren eta zeren artean beraiek ez zuela lagatzen, laugarren, -cuarta erderaz daukat jarrita-

“La diferencia no será objeto de reclamación, renunciando las mercantiles Promociones Salbide, S.L. y Nautica Unanue, S.L. a ejercitar cualquier acción en este sentido.”

Hori jasota dago, diktamenean jasota daukazue eta azkenengoa bide hortatik ez duzuela uste seguruena denik etbr... bueno, gobernu bi alderdiek osatzen dugu bere garaian y –no somos monocolor- eh! Eta ni egon naizen toki guztietan nire zalantzak ere jarri ditut, zeren Andonik ondo esaten zuen bezala orain gure ardura da eta gure gain dago eta gure ahalegin guztiak egingo ditugu, baina erderaz esaten den bezala –no es menos cierto que estamos al albur- ba... merkatuak esaten duenaren inguruan eta merkatua zoritxarrez da –dena- eta guk ez dugu salduko ilusio bat, errealitatea saldu beharra dago eta errealitatea da dena, beraz, gauzak garbi hitzegin behar dira eta garbi esan behar dira inor engainatu nahi ez delako, baino behin hori esan eta ondoren berriz aurrenea nator eta ze beste alternatiba dago, bestela? PNV

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Bai, askotan entzuten dugu, 2003ko hitzarmena, oso hitzarmen txarra izan zela eta bueno, ba... ez dakit, hain txarra izateko 2009ko bukaeran gaude (bai barkatu) erosleak hemen dauzkagu, herria daukagu banderolas beteta, krisia 2007an ia sumatu zen, ba... hain txarra ikusten baldin bazenuten zela pixkat lehenagotik mugitzea ere posible izango zen, ez?

Nik ez dut uste, eta zuk esan duzu saiatu ginela ahal den gehien ateratzen promotoreari, ba... bai. Herriaren alde. Ahal zen guztia eta nik usten dut hitzarmena gogorra zela? Bai, baina desde luego ez zen gogorra PNV-ren interesen alde, zen gogorra eta horko ba... onurak herrian geldituko ziren, ez?

Orduan, ba.. bueno denbora hor egon da.

Ardura? Ba... bai, orain arduraz jokatu behar duzutela? Ba... bai. Gobernuan zaudete eta zuen ardura da. Eta hor nonbaiten irakurri dut, ba... guri eskatu behar zaizkigula explikazioak zergatik hitzarmen hori ez den bete. Guri ez, guk hitzarmena sinatu genuenean betearaziko zen konfiantza osoarekin sinatu genuen. Promotoreak ez duela bete; oraingo udalak ez duela eskatu, ez dakit. Baino, guri?

Eta alternatibak ez direla presentatu.... Lehen ere esan dut, usten dut jokatu dugula era ba... bueno, bai kronologia luzia egin duzue eta zoritxarrez,

gure taldea ez da izan bilera guztietan, ba.. ezin izan dugulako gure lanagatik.

Izan garenean aportatzeko, nik usten dut, joera batekin joan gara eta lehen zeuk ere errekonozitu duzu gure taldeak aportatutako idea batzuk, hitzarmen hau egiteko balio izan dutela, besterik gabe

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Sin que sirva de crítica como no sé lo que habeis dicho no os puedo contestar, por lo tanto, no me voy a repetir con lo dicho anterior,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Nik bakarrik esan kontuak-kontu, jendea daukagula etxea erosita eta etxetik kanpora. Haur eta pilotari asko eta gehienbat haurrak non jokaturik ez daukatela, herritik kanpora joan behar dutela, eta hitzarmena nik berriro diot iruditzen zait txarra dela, abala jarriko bazen etxebizitza bukatu eta gero jarri beharrean, ba... obrak exekutatzeko garaian ba... arazo hau ez zela egongo, ez? Orduan esatea agian, erraza izango da, baina egia da inongo aurreikuspenik ez zuela hitzarmen horrek, orduan behartzen gaitu ba... diktamen batzuk egitea gure ustez pixkat arriskutsuak direnak, nahiz eta guk, gure babes teknikoa ere badugun eta teknikoarekin hitzegin da iruditzen zaigun ba... arrisku hau hartu beharra dagoela, behingoz aurre egiteko eta frontoi hau egiteko, besterik gabe, baino garbi gera dadila

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Komentatzen zenuten agian pixka bat lehenago mugitzen hasita, ba.. gauzak lehenago ere bukatuko zirela, baina kontua da bide hau, bien artean egitekoa zela, udala eta promozioa eta bidea egiten hasteko, biek bidea egiteko borondatea eduki behar dute, guk lehen esan dizuedan bezala ez daukagu –varita magikorik- promotore bati egin nahi ez duena egiten obligatzeko, ez dakit zuek bazeneukaten, baino guk ez daukagu eta elkarrekin Promociones Salbideko arduradunak eta Alkatea eta neu Izarraitzera igo behar baldin badugu, Alkatea eta neu Izarraitzen egon zain aber noiz igoko ote diren, ba... hantxe egongo gara zain, baino –hasta que no quieran subir- han ez gara egongo eta bilatzeko, aurkitzeko bidean, bidea egiteko borondatea behar da eta beroiek orain artean zeukaten hitzarmenaren, sinatuta zuten hitzarmenaren, hitzarmena dela medio, ez zeukaten inongo beharrik nahi baino lehenago ibiltzen hasteko. Eta guk ere ez daukagu inongo ahalmenik ibiltzen hasteko edo mugitzen hasteko, mugitu nahi ez duena, hori alde batetik, beraz, noiz hasi garen negoziaketetan eta noiz bukatuko dugun, azken finean, negoziatzeko bi alde behar dira eta ni paretarekin negoziatzeko ba... egia esan ez naiz

hasiko lehenago, ba... frentean norbait behar dut eta norbait izan dugunean negoziatu dugu, herriaren alde, herriaren hobe beharrez sinatu zenuten hitzarmen hura eta lortu zenuten ahalik eta gauza gehien, niri behintzat, ez dakit, ez zait hala iruditzen, ez zait hala iruditzen, ez zaidalako iruditzen herriaren alde egiten denik etxebizitzaren prezioaren inguruko espekulazioaren gurpilean murgiltzen garenean erakunde publikoetatik. Azkenean nork ordaindu behar zuen frontoia? Herritarrek ordaindu behar zuten.

Nork erosi behar dute Ardantzabideko etxebizitzak? Zumaiarrak.

Eta nor ari da etxebizitza horien prezioak gora eta gora bultzatzen? Ba... kargak etengabe ezartzen ari zatzaizkiona.

Udaletxe atzeko plazaren urbanizazioa, Ardantzabideko etxeak; aszensoreak, Ardantzabideko etxeak; Frontoia, Ardantzabideko etxeak; Anbulategiko lurrak, Ardantzabideko etxeak; Bai, bai gauza asko lortu ziren, baino nork ordaintzen ditu gauza guzti horiek?

